

# ARDUA ETA URA.

---

(NERE ADISKIDE ON BAUTISTA ELBERDIÑ-I)

Arduak zيون—Ni naiz  
sumo ederrena,  
erari guztiyetan  
estimatuena;  
ni gabe ez litzake  
munduan gauz onik,  
ez umore, ez pozik,  
ta ez osasunik;  
elbarri, aul, mintsuak  
bai ta ere zarrak,  
nerekin ornitutzen  
dituzte indarrak;  
ala berian triste  
daudenak negarrez,  
noiz nai ditut ipintzen  
kantari ta parrez...  
Urak entzunik aren  
kontu dena diyo,  
—Aiskidea zuk bañan  
geigo det baliyo;  
nik egarriya diyot  
kentzen guztiyai,  
gizon, andre, abere  
ta pisti danai;  
nik ditut *tren, bapore,*

guztiyak ibiltzen,  
ala berian sua  
danian itzaltzen;  
musua denak dute  
nerekien garbitzen,  
berotasunak ere  
nik ditut arintzen.  
Arduak diyo:—Ezer  
sustantzi ez dezu,  
¿mintsuai zér mesede  
egiten diyozu?  
baldin badezu ea  
esan zazu bada;  
—Mintsubentzat zu bañan  
obeia, naiz.... Salda  
. . . . . . . . . .  
Zenbat gizon dirade  
ichuraz kaskarrak,  
bañan serbitzuz beti  
biziro azkarrak;  
eta beste aundi ta  
on diruditenak,  
ayek izaten dira  
askotan charrenak,

# CHIRITA.



Chirita zebillen beiñ  
zokuak miratzen,  
jatekorikan ezer  
etzuben billatzan;  
eta nola gosiak  
zegüen irrikitzen,  
mokua maiz ūamar ark  
zuben irikitzen.

Bein ur bazterrera joan,  
bestian egatu,  
naizuben gauzik eziñ  
zuben ark eratu;  
alakorik batez *rau!*  
golpez zan beratu,  
ta euli mando baten  
aurrian geratu.

—¡A zer gauza gozua  
zaitena ingura,  
au bai gogoz sartuko  
detala barrura!—  
bañan asko jakiña

izanikan ura,  
pensamentu bat sortu  
zitzayon burura.

Ikusi nairik bizi  
ote zan euliya,  
igarri zuben tranpa  
zeegoala jarriya,  
ta diyo:—Naiz gosiak  
obe det bizipa,  
eta ez emen galdu  
jan nairik pistiya.—

. . . . . . . . .

Gizona arki leike  
noiz nai apuruan,  
arkiturikan traba  
bere inguruan;  
juiziyoz bear da  
ibilli munduan,  
aurretik pentsatuaz  
chiriten moduan.

JOSÉ ARTOLA.

